



22/2018, urriaren 25ekoa

---

## EBAZPENA

Giza Baliabide eta Administrazio Kudeaketa Zerbitzua

**Ebazpena, Arabako Foru Suhiltzaileak Erakundean, administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektore kategorian, karrerako funtzionario sartzeko deialdirako onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda onartzen duena, eta deialdiko Epaimahai Kalifikatzailea izendatzen duena.**

Lehendakaritzaren 4/2018 ebazpenak, otsailaren 6koak, administrazio bereziaren eskalan, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuan, azpieskala teknikoan, inspektore kategorian, karrerako funtzionario sartzeko oinarriak onartu zituen

Oinarri horietan ezarritakoa betetzeko, 2018ko martxoaren 19ko 24:00etara arte ezarri zen lehiaketarako eskaerak aurkezteko epea (ordutegi ofizialaren arabera).

Lehendakaritzaren 21/2018 Ebazpenak, urriaren 16koak, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zuen, eta 5 egun balioduneko epea ezarri zuen erreklamazioak aurkezteko.

Epea amaituta eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoa betetzeko, deialdiko onartu eta baztertuen behin-betiko zerrenda onartu da, baztertearen arrazoia adierazita; horrekin batera, ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko zer hautu egin den ere ageri dira.

Halaber eta deialdiaren oinarrietan ezarritakoa betetzeko, deialdiko Epaimahai Kalifikatzailea izendatu da, eta onartutako izangaiak oposizio aldiko ariketa egitera deitzen da.

Hala, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

## EBATZI DUT

**Lehenena.** Deialdi honetako onartu eta baztertuen behin-betiko zerrenda onartzea, eta ebazpen hau argitara dadin, baztertearen arrazoia eta, horrekin batera, ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko zer hautu egin den ere adierazita.

**Bigarrenena.** Hautaprobei Epaimahai Kalifikatzaileazendatzea. Ondorengo pertsona hauek osatuko dute Epaimahaia:



### Titularra

### Ordezkoa

**Presidentea:**

Javier Vergara Falces

Raquel Sánchez García

**Idazkaria (hitz egiteko eskubidea izango du baina ez boto ematekoa):**

Miren Lorea Durana Sagastegui

Daniel Anzizar Oroz

**Kideak:**

José Antonio Vicho Cancho

Tomás Lacalle Usabiaga

José Ignacio Inoriza Aizpurua

Sebastián Bayo Oñoro

**Hirugarrena.** Onartutako izangaia oposizio aldiko lehen ariketa egitera deitzea, Probintzia Jauregira, Araba Aretoan, (Probintzia Plaza z/g, 01001 Gasteiz), 2018ko azaroaren 13an, 10:00etan

**Laugarrena.** Ebazpen hau Interneteko [www.araba.eus/PortalEmpleo](http://www.araba.eus/PortalEmpleo) web orrian argitara dadin.

**Bosgarrena.** Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, edo nahi izanez gero, berraztertzeorrekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan - Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin loturik- xedatutakoaren arabera.

Gasteizen, 2018ko urriaren 25ean.

**María Pilar García de Salazar Olano**  
Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde  
Autonomoaren presidentea



**Francisco Javier Carro Iglesias**  
Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde  
Autonomoaren zuzendari kudeatzailea





## **IRAGARKIA**

### **BARNE SUSTAPENA**

**INSPEKTOREA (ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK ERAKUNDE AUTONOMOA)**

**ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN BEHIN-BETIKO ZERREDA**

#### **1.- ONARTUAK.**

| <b>NAN</b> | <b>ABIZENAK</b> | <b>IZENA</b> | <b>AZTERKETAKO HIZKUNTZA</b> | <b>EUSKARA PROBA</b> |
|------------|-----------------|--------------|------------------------------|----------------------|
| 16**0**9K  | REI             | JAV          | GAZTELANIA                   | EZ                   |

#### **2.- BAZTERTUAK.**

| <b>NAN</b> | <b>ABIZENAK</b> | <b>IZENA</b> | <b>BAZTERTZE-ARRAZOIA</b>                  |
|------------|-----------------|--------------|--------------------------------------------|
| 16**4**6P  | LAN             | JUA          | ERAKUNDE AUTONOMOKO FUNTZIONARIO EZ IZATEA |

